

# ARTXANDA MENDIAN UDAL ORTUEN ERABILERARAKO ETA APROBETXAMENDURAKO BAIMENAK EMATEA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK (2022-2025).

Bilboko Udalak ortuzaintza ekologikoa garatzeko bide berriak sortzeko, naturarekin harremanetan egoteko, eta bilbotarrek eremuak eta bizipenak komunitatean partekatzeko jarduerak sustatu nahi ditu, Artxanda mendian kokatuta dagoen eta katastroko 020001173 (843243E) zenbakia duen udal partzela beren esku jarrita.

Horrela, bada, udal ortu publikoen proiektua sortzen da eskaintza pedagogiko eta ekologiko gisa, herritarrei aukera emateko espazio publiko batean lurra modu ekologikoan lantzeko eta lur horren fruituak eskuratzeko, norberaren kontsumorako. Gainera, ekimenak ingurumen-hezkuntzaren eta gizarte-dinamizazioaren zabalkundea egiten du, jarrera eta balioen aldaketa sustatzen du, eta jokabide parte-hartzaile eta arduratsuak bultzatzen ditu. Era berean, balioko du elikadura osasuntsuak duen garrantziaz kontzientziatzeko, bertoko barazki-barietateak erabiltzearen garrantziaz sentibilizatzeko —balio handikoak dira, ingurunera egokituago daudelako eta, beraz, zaintza eta tratamendu gutxiago behar dutelako—, eta nekazaritzako praktika eta ezagutza tradizionalak transmititzeko.

Bilboko eraztun berdearen sustapenaren barruan, adin guztietarako aisialdiaren eta hezkuntzaren alorreko jarduerak bultzatzeko bitartekoa dira udal ortuak. Beren bidez, dinamizazio soziala eta ingurune naturalaren sustapena lehenetsi, eta, aldi berean, garapen jasangarria babestuko duen kulturaren eta aisialdiaren alorreko alternatiba sortu nahi da.

Halaber, naturaren espazio estrategiko txikiak bultzatzeko tresna dira. Bertan, herritarren hainbat sektoreekin ingurumen-hezkuntzako kanpainak egin daitezke, eta eremu horiek naturaren prozesuez eta bizitza-zikloez ikasteko behatoki bihurtu. Azken finean, norberaren bizipenen bidez, Natura errespetatzearen garrantzia eta gure uria modu jasangarrian garatzeko beharra ulertzea ahalbidetzen du ekimenak.

## **1 artikulua.- Xedea**

Oinarri hauek Artxanda mendian, Santo Domingo bidean, 020001173 (843243E) katastro-zenbakidun partzelan dauden ortu publikoak erabiltzeko baimena emateko, eta ortu horiek

erabiltzeko araubidea jasotzen dute.

## **2. artikulua.- Ortuak deskribapena**

Baimenena emango da 88 ortutarako. Bakoitzak 39 m<sup>2</sup> izango du, gutxi gorabehera.

Lursailak berezita egongo dira.

Partzelan, erabiltzaile guztientzako diren hiru etxola daude. Bata aldagela da, eta besteetan banakako armairuak daude, eta lurrak lantzeko tresnak uzteko eremu komun bat ere bai. Erabiltzaileentzako aparkalekua ere egongo da.

Artxandako udal ortuak bilbotar guztientzat izango dira, Otxarkoaga-Txurdinaga, Errekaldeberri-Larraskitu, Iturrigorri-Peñascal Uretamendi-Betolaza-Circunvalación , eta Zorrotzakoentzat izan ezik, haiek badituzte-eta beraien bakarrik erabiltzeko diren ortuak.

Ortuak loteka emango dira, onuradunen arabera:

1. Bilbotarrentzako lotea\*
2. Luzaroko langabetuentzako lotea\*
3. Desgaitasunen bat dutenentzako lotea\*
4. Irabazi-asmorik gabeko Bilboko elkarteentzako lotea. Honako hauek lehentasuna izango dute:
  - a. Ingurumena sustatzeko xedea dutenak
  - b. Gazteen elkarteak
  - c. Emakumeen elkarteak
  - d. Gizarte-kohesioa helburu dutenak
  - e. Beste batzuk \*

4. lotekoek —irabazi-asmorik gabeko elkarteena—, lurzatia erabiltzeko proposamen bat aurkeztu beharko dute, aisialdian naturaren balioak sustatzea aurreikusita.

## **3. artikulua.- Izaera eta araubide juridikoa**

Ortuak erabiltzeko baimenak arautuko dira Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legean nahiz Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Arautegia onartzen duen ekainaren 30eko 1372/1986 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Era berean, erabilera Espazio Publikoaren Ordenantzaren arauetara loturik egongo da (Udalbatzak 2010eko irailaren

---

\* Bilboko udalerri osoa Txurdinaga-Otxarkoaga Errekalde-Larraskitu, Iturrigorri-Peñascal, Uretamendi-Betolaza-Circunvalación eta Zorrotza auzoak izan ezik.

23ko osoko bilkuran onetsi zuen ordenantza hori).

Udala denez partzelaren jabea, berea izango da hura administratu, kudeatu eta zuzentzeko eskumena. Zentzu horretan, Udalak eskubidea izango du lursailen antolaketan eta banaketan aldaketak egiteko, bai eta ortuen azalerak aldatzeko ere, gorabehereri, ustekabekoei edo ezinbesteko arrazoiei aurre egiteko.

Erabiltzeko baimena prekarioan emango da, eta, beraz, edonoiz errebokatu edo aldatu ahalko da, baldin eta bidezko arrazoiak edo behar bezala egiaztatutako ezinbesteko arrazoiak badaude, edo baimena betetzen ez bada. Horrelakorik gertatuz gero, titularrak ez du eskubiderik izango inolako kalte-ordainik edo konpentsaziorik jasotzeko.

Udalak ez du batere erantzukizunik izango onuradunek, jardueraren ondorioz, jasandako edo eragindako kalteengatik, ez eta hirugarrenek onuradun horiei eragindako kalteengatik ere.

Udal organo eskudunak ebatziko ditu baimenaren interpretazioari, aldaketari, amaierari eta ondorioei buruzko auziak. Organo horren erabakiek administrazio-bidea agortuko dute, eta berehala betetzekoak izango dira. Erabakion aurka, aukeran, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahalko da, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua, administrazioarekiko auzien jurisdikzioko epaitegi eta auzitegietan.

#### **4. artikulua.- Baimenaren iraupena**

Baimena bi urterako emango da, eta urtebetez luzatzeko aukera egongo da, berau formalizatzen denetik edo ortua emateko akta izenpetzen den datatik zenbatzen hasita.

Bi urteko hasierako epea bukatzen denean, bi alderdietako batek ere ez badu era fedemaile batean adierazten baimenari uko egin edo hura errebokatu nahi duela, baimena beste urtebetez luzatuko da, automatikoki.

Baimenak emateko itxaron-zerrendara (ordezkoak) jotzen bada, onuradunek partzela erabiltzeko baimenaren gainerako eperako erabiliko dituzte ortuak, deialdi publiko berria egin arte. Pertsona horiek lursailak berritzeko deialdira aurkez daiteke.

## **5. artikulua.- Erabilera-araubidea**

Instalazio-sistema osoaren funtzionamendua nekazaritza ekologikoko irizpideetan oinarrituko da, bakar-bakarrik; eta, ekoizpena ekologikoa izango denez, tankera horretako jardunbideak baino ez dira erabiliko. Beraz, lurra lantzeko eta laboreak hazteko jardunek lurzoruko materia organikoa atxiki eta gehitu, haren egonkortasuna eta biodibertsitatea sendotu, eta lurra trinkotzea eta higatzea saihestu beharko dute.

Bestelako jarduerak debekatuta daude beren-beregi, produktuen salmenta, edozein motatako biltegiak eta fabrika-obra barne. Betebehar hori bete ezean, baimena errebotatu egingo da, automatikoki.

Pertsona edo elkarte onuradunek egiaztatu beharko dute nekazaritza ekologikoko jardunbideak ezagutzen dituztela. Horretarako, hasieran, Udalak nekazaritza ekologikoari buruz antolatutako prestakuntzara joan beharko dute, nahitaez. Halaber, finkaren ingurumen-kudeaketan parte hartu beharko dute, bai eta bertan garatutako ingurumen-hezkuntzaren arloko programetan ere.

Pertsona edo elkarte onuradunek ur-hargune bat izango dute, ureztatzeko; eta laborantza-tresnak uzteko leku komun bat ere erabili ahalko dute.

Ortuetako ordutegia: udazkenean eta neguan, 08:30etik 18:30era; eta udaberrian eta udan, 21:00etara. Asteburuetan ere, ordutegi horiek egongo dira.

## **6. artikulua.- Debekuak**

1. Debekatuta dago animaliak harrapatzeko tranpak edo harrapatze-metodo ez-selektiboak erabiltzea eta harrapatzeko jakiak jartzea, pozoidunak izan zein ez izan.
2. Debekatuta dago animaliak haztea, edo heskai bihurtzen diren edo inguruko ortuei eguzkia oztopatu ahal dieten zuhaitzak landatzea. Debekatuta dago, era berean, espezie exotikoen, tropikalen, psikotropikoen eta/edo legeak debekatutako espezieen soropilak haztea, eta lurra hondatzen duten landareak landatzea.
3. Debekatuta dago erabiltzaileek txabolak nahiz beste elementu finko edo desmontagarriak jartzea —hala nola, olanak, plastikoak, bidoiak, bankuak eta banatzeko elementuak— eta/edo edozein obra egitea. Elementu berriak jartzeko edo daudenak aldatzeko, Udalaren berariazko baimena beharko da. Baimen hori idatziz eskatu beharko da, eta bide beretik erantzungo zaio eskatzaileari.
4. Ortuak nekazaritza-erabilera izango du bakar-bakarrik, eta nekazaritza-

ekoizpen ekologikoari buruzko araudian ezarritako printzipioak bete beharko dira. Horrenbestez, debekatuta dago ortuko laboreetan nekazaritza ekologikoaren arloan indarrean den legediak onartzen ez dituen herbizidak, pestizidak eta ongarri kimikoak erabiltzea.

5. Ezingo da espezie transgenikorik edo genetikoki eraldatutako espezierik erabili.
6. Debekatuta dago ortuen eremura animaliak eramatea edo bertan animaliak paseatzea.
7. Berariaz debekatuta dago ortutik jasotako produktuak saltzea.
8. Debekatuta dago sua egitea ortuen eremu osoan, helburua edozein dela ere.
9. Dagoen ur-hargunearen instalazioa ezingo da manipulatu edo aldatu. Ez da onartuko ur-mahukarik erabiltzea, ez lursaila ureztatzeko, ez ureztatze-sistema alternatiboren bat hornitzeko. Debeku hori salbuetsi ahalko da desgaitasunak dituzten pertsonen lursailetan. Pertsona horiek mahuka erabiltzeko baimen espresua eskatu beharko diote Udalari.
10. Esleitutako ortua ezingo zaio beste inori laga edo eskualdatu, Administrazioak baimen espresua eman ezean.
11. Ortua ezingo da bizilekutzat erabili, ez modu iraunkorrean, ez behin-behinean.
12. Debekatuta dago eremuan ibilgailu pribatuak sartzea edo aparkatzea baimenik gabe.
13. Debekatuta dago beste edozein erabilera edo portaera, baldin eta eragozpenak edo kiratsa eragiten badituzte, gainerako ortuko erabilera edo gozamina murrizten badute edo inguruneari eragiten badiote.
14. Debekatuta dago espezie exotiko inbaditzaileak —animaliak zein landareak— sartzea ortuen esparru osoan.
15. Debekatuta dago ortuetara sartzeko giltzak lagatzea udal arduradunen baimen espresurik ez duen inori.

Artikulu honetan zerrendatutako klausulak bete ezean, ortua erabiltzeko baimena errebokatuko da.

## **7. artikulua.- Onuradun izateko baldintzak**

Bilbon erroldatutako pertsonak aurkeztu ahalko dira\*. Otxarkoaga-Txurdinaga, Erekaldeberri Larraskitu, Iturrigorri Peñascal, Uretamendi Betolaza Circunvalación eta Zorrotza auzoetakoak ezingo dira aurkeztu, auzo horietan badaude-eta haien bakarrik erabiltzeko ortuak.

---

\* Bilboko udalerri osoa Txurdinaga-Otxarkoaga Errekalde-Larraskitu, Iturrigorri-Peñascal, Uretamendi-Betolaza-Circunvalación eta Zorrotza auzoak izan ezik

## **7.A Pertsona fisikoek bete beharreko baldintzak**

### 1. lotea: auzotarrak:

1. Bilbon erroldatuta egotea. Bilboko udalerri osoa, Otxarkoaga-Txurdinaga, Erekaldeberri Larraskitu. Iturrigorri Peñascal, Uretamendi Betolaza Circunvalación eta Zorrotza auzoak izan ezik.
2. Bilboko Udalarekin zorrik ez izatea

### 2. lotea: luzaroko langabeak:

1. Bilbon erroldatuta egotea. Bilboko udalerri osoa, Otxarkoaga-Txurdinaga, Erekaldeberri-Larraskitu, Iturrigorri Peñasca- uretamendi circunvalación eta Zorrotza auzoak izan ezik.
2. Luzaroko langabe egoera egiaztatzea (LANBIDEn agiria).
3. Bilboko Udalarekin zorrik ez izatea

### 3. lotea: desgaitasunak dituzten pertsonak:

1. Bilbon erroldatuta egotea (Bilboko udalerri osoa, Otxarkoaga-Txurdinaga, Erekaldeberri Larraskitu. Iturrigorri Peñascal, Uretamendi Betolaza Circunvalación eta Zorrotza auzoak izan ezik).
2. Organo eskudunak egiaztatutako desgaitasuna izatea.
3. Bilboko Udalarekin zorrik ez izatea

## **7.B Irabazi asmorik gabeko Bilboko elkarteek bete beharreko baldintzak**

1. Bilboko Elkarten Erregistroan izena emanda egotea.

Irabazi asmorik gabeko Bilboko elkarten lotean, lehentasun-hurrenkera hau ezarri da:

- a. Ingurumena sustatzeko lan egiten duten elkarteak
- b. Gazteen elkarteak
- c. Emakumeen elkarteak
- d. Gizarte-kohesioa helburu duten elkarteak
- e. Beste batzuk\*

Bilboko Udalarekin zorrik ez izatea

## **7. C Errolda-helbide bakoitzeko, gehienez ere, lursail bat (1) esleitu ahalko da.**

Ezingo dira aurkeztu aurreko baimen-aldian 36 hilabetez edo gehiagoz lursail baten titularrak izan direnak.

36 hilabeteak kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko COVIDak eragindako konfinamendu

orokorreko hilabeteak; hau da, 2020ko martxoaren 16tik maiatzaren 6ra bitarteko egunak.

Edozelan ere, zozketa-aldia amaituta eta aurkeztutako eskabideak baloratu ostean, loteren batean lurzorurik geratzen bada esleitu gabe, eskatzailerik egon ez delako, Udalak zera egin ahalko du:

1. Hutsik geratu diren lursailak beste lote batera esleitzea.
2. Bigarren zozketa bat egitea 36 hilabetez edo gehiagoz ortuen titular izan diren, eta lursail bat erabiltzen jarraitu nahi duten pertsona edo elkarteen artean.
3. Erabiltzeko baimena ematea udal ortuen proiektuan parte hartzeko interesa agertu dutenei eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gero.

Ortu bakoitzean, gehienez ere, 4 lagun aritu ahalko dira. Bilbon erroldatuta egon beharko dute denek. Behin lursaila adjudikatuta, titularrak baimen espresua eskatu beharko dio Udalari gainerako pertsonentzat, eta, horretarako, beren datuak aurkeztu beharko ditu.

Ortuak loteka banatuko dira, irizpide hauen arabera:

- 1-4, 19-62 eta 73-88 lurzatiak, zenbaki horiek barne, auzotarrentzat.
- 63-72 partzelak, zenbaki horiek barne, Bilboko luzaroko langabetuentzat.
- 7-9, 10. eta 11. lurzatiak, desgaitasun fisiko edo intelektualen bat duten bilbotarrentzat edo pertsona horiekin lan egiten duten elkarteentzat.
- 12-18 lurzatiak, irabazi asmorik gabeko Bilboko elkarteentzat, behar bezala inskribatuta badaude Elkarte Udal Erregistroan.
- 5. eta 6. lurzatiak, ingurumen-hezkutzarekin eta Bilboko Eskolako Agendarekin zerikusia duten jardueretarako izango dira.

## **8. artikulua.- Onuradunen eskubideak**

Auzoko ortuak erabiltzeko baimenaren onuradunek honako eskubide hauek izango dituzte:

1. Lurzatia esleitzeko unean, ezarritako ordutegian erabili eta gozatzeko egoera onean dagoen lursail bat erabilgarri izatea.
2. Nekazaritza ekologikoari buruzko aurretiazko prestakuntza eta etengabeko aholkularitza jasotzea.
3. Lursailean ur-hargune komun bat izatea.
4. Nekazaritzako lanabesak gordetzeko erabiltzaile guztientzako ekipamendua erabiltzea.
5. Ortuko produktuak autokontsumora bideratzea.

## 9. artikulua.- Onuradunen betebeharrak

Auzoko ortuak erabiltzeko baimenaren onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

1. Lurra lantzeko norberarentzako oinarrizko lanabesak erostea aitzurra, pala...
2. Esleitutako ortua egoera onean mantentzea eta zaintzea; eta norberaren lurzattia nahiz gainerako instalazioak ere zaintzea eta segurtasun-, osasungarritasun- eta apaintasun-baldintza egokietan daudela bermatzea. Horrez gain, onuradunak eremu komunak garbitzeaz eta esparruaren mantentze-lan orokorrez arduratuko dira.
3. Sortutako hondakin organikoak kudeatzea, gero ongarri gisa berrerabiltzeko; ahal dela, lursailean bertan.
4. Sortzen diren gainerako hondakinak behar bezala bereiztea eta dagokien edukiontzietara botatzea.
5. Lurra erabiltzea irizpide ekologikoei jarraituta, eta Udalak horren inguruan ezarritako baldintzak betetzea.
6. Ureztatzeko ura modu arduratsuan kontsumitzea.
7. Nekazaritzako sasoiaren barruan, ortua jarraitutasunez lantzea. Bi hilabete baino gehiagoz ortua zaintzeari uzten bazaio bidezko arrazoirik tartean egon gabe, norbanako edo elkarte erabiltzailea proiektutik kanporatua izango da, eta ortua beste eskatzaile bati esleituko zaio.
8. Korridoreak libre eta garbi mantentzea.
9. Erruz edo zabarkeriaz hondatu edo galtzen diren ondasun edo ekipamenduak konpontzeko edo ordeztea.
10. Antolatzen diren dinamizazioko eta ingurumen-hezkuntzako jardueretan laguntzea; hala nola, ortuko produktuen erakusketetan, jardunaldi didaktikoetan eta programatzen diren gizarte-dinamizazioko gainerako jardueretan —bai elkarte esleipendunen, bai Udalaren ekimenez antolatutakoetan—.



11. Udalak ortuekin zuzenean lotuta antolatutako ikastaro eta jardunaldietara joatea.
12. Landatutako barazkiak jaso eta kontsumitzeko interesik ez izatekotan, proiektuaren arduradunei jakinarazi, helburu sozialak dituzten erakundeetara bidali ditzaten
13. Udal langileei edo horretarako izendatutako erakundeei edozein unetan instalazio guztiak —banakoak zein erabilera komunekoak— ikuskatzen uztea, araudia behar bezala betetzen dela egiaztatzeko.
14. Udalak izendatutako jardueraren arduradunak emandako ohartarazpenak betetzea, une oro.

Artikulu honetan zerrendatutako betebeharrak ez betetzeak ortua erabiltzeko baimena errebokatzea ekarriko du.

## **10. artikulua.- Bitartekaritza**

Ortuen erabiltzaileek pertsona bat edo bi izendatu beharko dituzte, beren ordezkari izateko eta Udalarekin bitartekari-lana egiteko .

## **11. artikulua.- Eskabideak aurkezteko lekua eta epea**

Zozketan parte hartu nahi duten pertsona edo elkarteek beren eskabideak bete beharko dituzte, baldintza-orri honen I. eranskinean jasotako eskabide-ereduaren arabera; eta eskatutako agiriak ere aurkeztu beharko dituzte.

Eskabideak, bete eta gero, modu hauetako batean aurkeztu beharko dituzte:

11.1 Bilboko Udaletxeko Erregistro Orokorrean (Ernesto Erkoreka plaza 12) edo barrutietako udaltegietako erregistroetan, astelehenetik barikura, 08:30etik 14:00etara, aurretiazko hitzorduarekin.

11.2 [www.Bilbao.eus](http://www.Bilbao.eus) udal webgunean (izapideen atalean), egoitza elektronikoan (e-Udala):

<https://www.bilbao.eus/aytoonline/jsp/instanciageneral/login.jsp?idioma=c>.

11.3 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua aurreikusitako bideak erabilita.

Eskabideak aurkezteko epea 20 lanegunekoa izango da, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera.

Errolda-helbide bakoitzeko, gehienez ere, eskabide bat auzoketuz, eta lursail bakarria esleitu ahalko da.

## **12. artikulua.- Auzoketuz beharrezko dokumentazioa**

Lurzatiaren zozketan onartuak izateko, interesdunek I. eranskineko eskabidea auzoketuz beharrezko dute, behar bezala beteta; eta eskabideari dokumentazio hau erantsi beharrezko diote:

Kasu hauetan bakarrik auzoketuz beharrezko da dokumentazioa.

Desgaitasunen bat duten pertsonen elkarte bat auzoketuz gero:

- Erakunde edo elkartearen eratu izanaren egiaztagiriak eta estatutuak.
- Memoria bat, esleiturako ortuan bazkideekin egin nahi diren ustiapen pedagogikoko jarduerari buruzkoa.
- Elkartearen ordezkaria udalarekin hitz egiteko.

Langabetuek:

- LANBIDEn zuztagiria, langabezia-egoeraren antzintasun-data eta luzaroko langabe egoera jasotzen dituenak.

Irabazi-asmorik gabeko elkarteek:

- Proiektu bat, esleiturako ortuan gauzatu nahi dituzten jarduerak eta ortua ustiatzeko modua, eta aurreikusitako dinamizazio-jarduerak edo ingurune naturala sustatzeko jarduerak zehazten dituenak. Horiek guztiak helburu sozialarekin zuzenean lotuta egon beharrezko dute.
- Udalarekin bitartekari-lanak egiteko ordezkaria.

## **13. artikulua.- Ortuak esleitzeko eta eskaerak baloratzeko prozedura:**

Eskabidean, eskatzaile bakoitzak lote bakarria aukeratu beharrezko du.

- a) Auzokoen lotea: eskari gehiago badago ortu bako, zoketa egingo da.
- b) Luzaroan langabezia dauzkan auzokoen lotearen esleipena: eskari gehiago badago ortu bako, zoketa egingo da.
- c) Desgaitasunen bat duten auzokoen lotearen esleipena: eskari gehiago badago ortu bako, zoketa egingo da.

- d) Irabazi-asmorik gabeko Bilboko elkarteentzako lotea esleitzea: puntuazioaren arabera.

Elkarte bakoitzak lor dezakeen gehieneko puntuazioa:

Ingurumena sustatzeko helburua dutenek: 5 puntu

Gazteek osatutakoek: 4 puntu

Emakumeek osatutakoek: 3 puntu

Gizarte-kohesioa xede dutenek: 2 puntu

Besteek \* (1 puntu)

Berdinketarik egonez gero, elkarteek aurkeztutako proposamena baloratuko da. Horretarako, elkarteek memoria edo proiektu bat aurkeztuko dute, elkartearen helburuak eta udal ortu ekologikoen proiektuan aurreikusitako helburuei dagokienez lurzatiari eman nahi dioten erabilera azalduz.

#### **14. artikulua.- Balorazio Batzordea**

Balorazio Batzordeak aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du, prozesuan onartutakoen behin betiko zerrenda egingo du, balorazioa egingo du, eta, horren ostean, baimena jasoko duten pertsonak eta elkarteak proposatuko ditu.

Batzordea honako hauek osatuko dute:

- Mugikortasuneko eta Jasangarritasuneko zuzendaria, edo hark eskuordetutako pertsona.
  
- Teknikariak.
  - Batzordekideak Ingurumeneko Sailataleko burua.
  - Batzordekideak: Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko teknikariak.
  - Idazkaria: Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko euskarri juridikoko teknikaria.

#### **15. artikulua.- Onartuen zerrenda**

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Balorazio Batzordeak epe horren barruan eta ezarritako moduan aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du bai eta zozketan parte hartzeko behar diren agiriak egiaztatu ere onartuen eta baztertuen zerrenda osatuko du.

Zerrenda hori Udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko da, eta hamar egun balioduneko epea emango da eskabideen akatsak zuzentzeko, halakorik egonez gero.

Akatsak zuzentzeko epea igarota, onartuen behin betiko zerrenda argitaratuko da, Udalaren iragarki-taulan eta webgunean.

Eskabiderik ez dagoelako loteren batean lursailen bat hutsik geratzen bada, Udalak erabakiko du zein loteri esleitu, Balorazio Batzordearen irizpide arrazoituaren arabera.

Iragarki berean argitaratuko da zozketa publikoa zein toki, data eta ordutan egingo den.

Eskabiderik ez dagoelako loteren batean lursailen bat hutsik geratzen bada, Udalak erabakiko du zein loteri esleitu, Balorazio Batzordearen irizpide arrazoituaren arabera.

## **16. artikulua.- Behin-behineko zerrenda eta itzarote-zerrenda**

Zozketa adierazitako toki eta datan egin ondoren, lursailen esleipendunen behin-behineko zerrenda eta dagokion itzarote-zerrenda egingo dira.

Elkarteentzako ortuen kasuan, aurretiaz ezarritako irizpideen arabera lortutako puntuazioaren arabera esleitu dira. Elkarteen puntuazioetan berdinketa badago eta eskatzaile guztientzako behar beste lursail ez badaude, berdinketa ebatziko da elkarteek aurkeztutako azalpen-proiektuak ebaluatuta.

Balorazio Batzordeak lursailen loteak esleitzeko proposamena egin eta gero, esleipendunen behin-behineko zerrenda osatuko da, eta jendaurrean jarriko da Udalaren iragarki-taulan eta webgunean. Haren aurkako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira hamar laneguneko epean, zerrenda argitaratu eta biharamunetik aurrera.

## **17. artikulua.- Behin betiko zerrenda eta itzarote-zerrenda**

Epea erreklamaziorik gabe igaro ostean, edo, erreklamaziorik aurkeztuz gero, horiek ebatzi ostean, Gobernu Batzordeak erabakia hartuko du, ortuak erabiltzeko baimenen onuradunen sailkapena onartuz. Horren ostean, baimenak formalizatuko dira, Udalak nekazaritza ekologikoari buruz emango duen prestakuntza jaso dela egiaztatuta eta gero.

Aldi berean, osatuta geratuko da behin betiko itzarote-zerrenda, baldintzak bete arren

lursail baten onuradun izan ez diren eskatzaileekin.

Gobernu Batzordeak zerrenda horiek biak onartzeko erabakia hartu eta gero, Udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko dira, eta, gainera, onuradun bakoitzari behar bezala jakinaraziko zaio.

Zerrenda horren aurka berraztertzeko errekurtoa jar daiteke, hilabeteko epean, hura argitaratzen den dataren biharamunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri ahal da, administrazioarekiko auzien epaitegietatik egoki den hartan, argitaratze-dataren biharamunetik hilabete biko epean.

Behin-behineko esleipendunak behin betiko bihurtuko dira, 7. artikuluan eskatutako baldintzak eta nekazaritza ekologikoko prestakuntza badituztela egiaztatzen denean.

Aldiz, emandako epearen barruan oinarrietako baldintzak betetzen ez badira, ortua libre estela, geratuko da eta berriro esleituko da, itxarote-zerrendako hurrenkerari jarraituz. Itxarote-zerrendara jotzen den kasuetan, onuraduna edo onuradunak ortuaren esleipendun izango dira lurzatia erabiltzeko baimenari hurrengo deialdira arte falta zaion tartera arte, itxarote-zerrendan egondako pertsonak edo pertsonak, esleipen berriari begira, deialdi berrian lehentasunen bat izan zein ez izan.

## **18. artikulua.- Baimenak formalizatzea eta fidantza**

Baimenak emateko prozesua bukatu eta behin betiko itxarote-zerrenda osatu eta gero, ortuak erabiltzeko baimenak formalizatuko dira. Udalak emandako prestakuntza-ikastarora joan izana egiaztatu beharko da. Prestakuntza horretara joatea ezinbesteko baldintza izango da, lursailak erabili ahal izateko. Prestakuntzara joan ezean, uko egin dela ulertuko da.

Administrazio esleitzzaileak fidantza bat ezartzeko aukera izango du, 50 eurokoa, eta lursailaren onuradun gertatu den pertsonari giltzak eta baimena entregatzeko unean jarri beharko du.

Fidantza hau baimena amaituta itzuliko da, baimena baliogabetzean edo uko egitea gertatuz gero, eta onuradunak giltzen multzoa itzultzen duenean eta haren baratze eta aldageletako armairua egoera onean daudela egiaztatzen denean .

## **19. artikulua – Baimena azkentzea eta errebokatzea**

Jabari publikoko ortuak ustiatzeko baimena azkenduko da honako arrazoi hauek direla eta:

- Borondatez uko egin edo baja ematea, Udal Erregistroan aurkezturiko idazki bidez.
- Abisatu barik, bi hilabete baino luzaroago ortua zaindu barik edukitzea, instalazioen mantentze-lanetako arduradunek egiaztatuta
- Baimendutako pertsona hiltzea edo desgaituta geratzea.
- Bi alderdiek horretan ados jartzea.
- Baimena iraungitzea edo muga-eguna iristea.
- Esleipena eragin zuten zirkunstantziak desagertzea.
- Esleipendun izateko betebeharrak betekizunak ez betetzea.

Administrazioak baimena errebotatu ahalko du edozein unetan, aldebakarreko erabakiz, interes publikoko arrazoiengatik edo baldintza-agiri honetako baldintzak ez betetzeagatik, eta kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortu gabe.

# I. ERANSKINA

ARTXANDA MENDIAN UDAL ORTUAK ERABILTZEKO BAIMANEREN DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA.

Izen-abizenak:

NAN:

Helbidea:

Telefono finkoa:

Eskuko telefonoa:

Helbide elektronikoa, jakinarazpenetarako:

## ESKATZEN DU:

Parte hartzea Artxanda mendian udal ortu bat ustiatzeko, erabiltzeko eta ortu horretaz gozatzeko baimena lortzeko prozesuan. Halaber, adierazten du bete egiten dituela Gobernu Batzordeak 2022ko martxoaren 30ean onetsitako oinarri hauetan ezarritako baldintza guzti-guztiak, eta horiek denak ezagutu eta onartzen dituela, baldintzarik gabe.

Eskabidearekin batera, dokumentazio hau aurkezten du:

### Auzoko luzaroko lanbagebuentzako lotea:

LANBIDEren ziurtagiria, langabezia-egoera eta horren antzintasuna egiaztatzen duena.

### Desgaitasunen bat duten pertsonen edo horien elkarreentzako lotea:

➤ Elkarreentzako kasuan:

Erakunde edo elkarreentzako sortu izanaren egiaztapiriak, eta entitatearen

estatutuak.

- Ortuaren erabilera pedagogikoari buruzko proposamena.

### Irabazi asmorik gabeko elkarteentzako lotea:

- Elkartearen jardueren proposamena.
  
- Elkartearen ordezkariaren edo ordezkarien izendapena. (gehienez, 2)

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, **interesdunak EZ du aurkeztu behar** Bilboko Udalak edo beste erakunde batek lehendik bere esku daukan dokumentazioa; izan ere, Udalak egoki diren agiriak kontsultatu eta bilduko ditu, **salbu eta kontsulta horren AURKA agertzen bada eta hala adierazten badu beheko laukitxoan eta funtsatzen badu. Kasu horretan, interesdunak agiri horiek aurkeztu beharko ditu.**

#### **Udalak kontsulta hauek egitearen KONTRA nago:**

- Bilbon erroldatuta dagoen edo ez (Kontra egonez gero, honako hauek aurkeztu behar dira: "Familiaren errolda-agiria, NAN, AIZ edo pasaportearen zenbakiak dituelarik agerian")
- Ba ote daukan zorrik Bilboko Udalarekin (Kontra egonez gero, "Bilboko Udalarekiko ordainketetan egunean izatearen ziurtagiria" aurkeztu beharko du)
- Ba ote duen desgaitasunen bat (Kontra egonez gero, "Desgaitasunaren ziurtagiria" aurkeztu beharko du)
- Izen emanda ote dagoen Bilboko Elkartearen Erregistroan.

**Honako arrazoi hauengatik:** \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

Bilbon, 2022ko .....aren.....(e)(a)n.

Eskatzaile(ar)en sinadura:

- Deialdi honen oinarriak irakurri ditut eta onartzen ditut.



